

HITZ BITAN

NIGERIA

Gutxienez 200 lagun hil dira kolerak jota

Gutxienez 200 pertsona hil dira azken asteetan Nigeria iparraldean izandako kolera izurritearen ondorioz, ospitaleek jakinarazi dutenez. Nigeriako Gobernuak, ordea, hildakoak zortzi bakarrik direla esan du. Kolera izurritea ezkutatu nahi izatea egotzi diote administrazioari.

SERBIA

Inteligentzia buruordeak kargua utzi du, Hagako Auzitegiaren aurka izandako istiluengatik

Serbiako inteligentzia zerbitzuetako buruordeak kargua utzi zuen atzo, herrialde horretan Hagako Nazioarteko Auzitegi Penalaren aurka *kapel gorriak* deitutako zerbitzuaren unitateak eragindako istiluen ardura egotzi baitzioten. Barne ministroa ere dimisioa aurkezteko prest agertu da, auzi beragatik.

GINEA

Hirugarren agintaldiari eustea lortu du Kontek, erreferendumean

Lansana Conte Gineako presidenteak hirugarren agintaldiari eutsiko dio, hori ahalbidetzeko erreferendumean parte hartu zuten herritarren %98k alde bozkatuta. Biztanleriaren %20k bakarrik bozkatu zuela salatu eta nazioarteko bahimenduak ezartzeko eskatu zuen oposizioak.

IPAR ETA HEGO KOREA

Akordiorik gabe amaitu da adiskidetzaren alde egindako bilkura

Adostasunik gabe amaitu zen atzo azken sei egunetan Ipar eta Hego Koreako ordezkariak bi herrialdeen adiskidetzaren alde urratsak egiteko egindako sei eguneko bilkura. Auzi ekonomikoen inguruko bilera egitea adostu zuten hala ere.



EMILIO MORENATTI / EFE

Ehorztetxeak, autobusak istripua izan zuen lekutik gorpuak kutxetan eramaten, atzo arratsaldean.

ESPAINIA. Bidaia turistikoa egiten ari zen Kataluniako adineko jendea

Huelvan 19 pertsona hil dira eta 24 zauritu autobus istripu batean

Erredakzioa | DONOSTIA

Huelvan istripu larria gertatu zen atzo. Adineko jendez betetako Bartzelonako autobus bat errepidetik irten zen, bihurgune batean. 19 pertsona hil eta 24 zauritu ziren ezbeharrean. Bi pertsonak ez zuten inolako kalterik izan; autobus gidaria zen horietako bat.

Istripua eguerdiko 13:50ean gertatu zen, Huelvako La Palma del Condado eta Valverde del Camino herriak lotzen dituen errepidean. Tarragonako eta Bartzelonako jende edadekoa zihoan autobusean, eta Huelva ezagutzeko bidaia turistikoa egiten ari ziren. Matalascañasko hotel batean zeuden; egun horretako txangoa hartu ez zutenek laster izan zuten lagunen zorigaitzoaren berri.

Autobus gidariak 25 urte daramatza lan horretan eta sekula ez zuela istripu larriarik izan jakinarazi zuen, eta ez zekiela istri-

pua nola gertatu zen. Bestalde, alkoholemiaren proban negatibo eman zuen. Juan Alfaro lekukoaren arabera, autobusa orduko 80 edota 90 kilometrorra zihoan; Alfaro autobusaren atzeko automobilean zegoen. Autobusa lehenengo ezkerrera eta gero eskuinera joan zela azaldu zuen, eta derrapatu ondoren alde batera erori zela. Badirudi autobusak 60 metro egin zituela aurrera, lurrean zegoela.

Iveco Pegaso etxeko autobusak 45 bidaiari zeramatzan, baina 55 lagunentzako tokia zuen. Izan ere, taldetxo bat Valverde del Camino herrian geratu zela.

Doluminak

Hildako denak Kataluniakoak zirenez, bertako agintariak doluminak eman zizkieten senitateko; Jordi Pujol Generalitateko presidentek, adibidez. Zenbait agintari istripuaren tokira joan ziren, Joan Miquel Nadal Tarragonako alkatea eta

Juan Carlos Aparicio Espainiako Lan ministroa kasu.

Generalitateak senitatekoendako jarritako bi autobus Huelvarantz joan ziren atzo gauean, Tarragona zein Bartzelonatik. Gaur goizean iritsiko dira hara. Bi autobusetan psikologo taldeak zihoazen, familiei laguntzeko. Bidaiarien senitatekoak larri zeuden atzo, iristen zitzaizen informazioa aski nahasgarria zelako; lagun eta familiartekoak bizirik zeuden edo ez jakiteko udaletxeetara jo zuten askok.

Bidaiariak L'Hospitalet, Tarragona, Reus, Torredembarra, Sitges, Castelldefels, Cerdanyola, Bartzelona, Badalona, Valls, Igualada, Sant Boi eta Boda de Barakoak ziren. Gorpuak La Palma del Condado herriira eraman zituzten, eta autopsia egin behar zieten bertan. Zaurituak, berriz, Huelvako eta Sevillako ospitaleetara eraman zituzten.

ALEMANIA

Istiluak izan dira Gorlebenen tren nuklearra heltzean

Istiluak izan ziren atzo Polizia eta manifestari ekologikisten artean Frantziatik Alemaniara hondakin nuklearrak garraiatzen zituen trena Gorlebengo zabortegira heldu zenean. Ehun bat lagun atxilotu zituela esan zuen Poliziak. Trena atzeratzea lortu zuten protestariak bere buruak trenbidera kateatuz

IRLANDA

Aurrekontuen inguruan eztabaidatu dute Gobernuaren lehen bileran

Joan den astean lehen ministroa izendatu ondoren Ipar Irlandako Gobernuak atzo egin zuen lehen bileran aurrekontuen inguruan jardun zuten ministroek. Ipar Belfasten azken egunotan izaniko istiluen inguruan ere mintzatu ziren Stormonteko exekutiboko kideak.

MAZEDONIA

Poliziaren egoitza bati eraso diote ustez gerrillari albaniarrek

Mazedoniako Poliziak Tetovo hiriarren inguruan zuen egoitza baten aurka granadak eta balak bota zituzten atzo ustez gerrillari albaniarrek. Skopjeko Legebiltzarrean, bitartean, hainbat egunez geldirik egon den Konstituzioa aldatzeko eztabaida jarraitu zuten.

KOLONBIA

Paramilitarrak laguntzeagatik lau militar kargugabetu dituzte

Hamar nekazari hiltzeko eskuin muturreko paramilitarrek eginiko operazioan lagundu zutelakoan goi mailako lau militar kargugabetzea erabaki zuen atzo Bogotako auzitegi batek.



Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria

TAIWAN

Danimarkak eta Frantziak bisa ukatu diote Chen Shui-bian presidenteari

Taiwango presidente Chen Shui-bianek ez du askatasunaren eta demokraziaren alde egiteagatik eskaini dioten saria jasotzerik izango, Danimarkak eta Frantziak bertan sartzeko bisa ukatu baitiote. Txinak presioa egin zien bi herrialdeei Shui-bianen bisita eragotz zezaten.



ADEL HANA / AP

Ekintzaile palestinar bat.

EKIALDE HURBILA

Milaka palestinarrek PANen Poliziaren eraikin bati eraso diote

PAN Palestinako Aginte Nazionalaren Poliziaren eraikin bati eraso zioten 3.000 palestinarrek atzo Zisjordaniako Jenin hirian, agenteek Jihad Islamikoa erakundeko militante bat atxilotu izanaren aurka protesta egiteko. Bestalde, gaixo zegoen palestinar bat hil egin zen atzo, Israelgo soldaduek kontrol batean hainbat orduz gerarazi eta ospitalera garaiz iristea eragotzi ziotenean. Israelgo Defentsa ministroak kagune juduak hedatzen segitzeko asmoa zuela berretsi zuen atzo.